



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2014KO MAIATZAREN 30EKO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2014.05.30.
Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.
Zinegotziak:
Ander Almandotz Indakoetxea jn.
Koldobike Gorostiza Uriguen and.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Mikel Leiza Etxeberria jn.
Teodoro Pikabea Zubieta jn.
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespina.
- 2.-Jose Manuel Oscoz Iturria jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 3.-Jose Manuel Oscoz Iturria jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 4.-Bernardo Fagoaga Alzuri jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 5.-AEK: eskola erabiltzeko baimen eskaera.
- 6.-Orbaibarko Administrazio Zerbitzuen Batasuneko mozioa.
- 7.- Xabier Alzuri Apezetxea jaunaren idatzia.
- 8.-Medikuaren etxeko bizitzaren leihoak.
- 9.-Larretako bidearen mugaketa.
- 10.-Alkatearen ebazpenak.
- 11.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2014ko apirilaren 28an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-JOSE MANUEL OSCOZ ITURRIA JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Jose Manuel Oscoz Iturria jaunak Arantxumatxo alderdian pinu insignisen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (entresaka, 1. poligonoko 111. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Jose Manuel Oscoz Iturria jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

3.-JOSE MANUEL OSCOZ ITURRIA JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Jose Manuel Oscoz Iturria jaunak Arginputzueta alderdian alertzen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 6. poligonoko 258. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Jose Manuel Oscoz Iturria jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4.-BERNARDO FAGOAGA ALZURI JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Bernardo Fagoaga Alzuri jaunak Landaetxeko Borda alderdian pinu insignisen (100 landare) probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 5. poligonoko 105.A lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Bernardo Fagoaga Alzuri jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

5.-AEK: ESKOLA ERABILTZEKO BAIMEN ESKAERA.

AEK erakundeak udako ikastaroak antolatzeke Arantzako eskolako gelak (goiko solairuko hiru gela eta eskailerak igota komunen ezkerrean geratzen den gelatxo txikia) uztailaren 7tik abuztuaren 31a arte erabiltzeko aurkeztutako baimen eskaera ikusirik.

Ikusirik Arantzako Herri Eskolako zuzendariak emandako aldeko txostena baino kejekin ez direlako joan den urtean gelak eta mahaiak hasieran zeuden bezala utzi, horrek dakarren lana irakasleei kurtso hasieran.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) AEK erakundeari 2014ko uztailaren 7tik abuztuaren 31 arte Arantzako eskolako gelak erabiltzeko baimena ematea, aurkeztutako eskaeraren arabera.
- 2) Eskatzaileari 300,00 euroko fidantza eskatzea eta jakinaraztea barnetegia hasi aurretik argazkiak ateriko direla gelei ikusteko euren egoera bukaeran, berdin geratu behar dutelako altzariak eta mahaiak ere.
- 3) Jakinaraztea ere euren ardura izanen dela eskola zaintzea eta beraien kontura izanen direla sortutako kalteak.
- 4) AEK erakundeari jakinaraztea garbiketa orokorra egin beharko dutela barnetegi bakoitzean, 15 egunetik.

6.-ORBAIBARKO ADMINISTRAZIO ZERBITZUEN BATASUNEKO MOZIOA.

Irakurri dute mozioa eta denek jakinen gainean gelditu dira.

7.- XABIER ALZURI APEZETXEA JAUNAREN IDATZIA.

Ikusirik Xabier Alzuri Apezetxea jaunak aurkeztutako eskaera, Pablaren Borda eta eskollera arteko errepidean pare bat baden jartzeko ibilgailuak abiadura moteltzeko eta Goiz Argi etxe ondoko postean herriko argia jartzeko ingurua gehiago argitzeko.

Ander Almandoz Indakoetxea jauna badenak jartzearen kontra agertu da.

Gaineko sei zinegotzien botoekin, ERABAKI DUTE:

- 1) Aipatutako kalean baden bat eta argia jartzea, jakinaraziz berarekin zehaztuko dela non edo ze lekuetan jarriko den badena.
- 2) Halaber, inguruko bidegurutzean (Pabloeneko Bordan) ispilu bat jartzea ibilgailuak hobeto ikusteko elkar.

Jose Ignacio Madariaga Vergara ateri da bilera aretotik.

8.-MEDIKUAREN ETXEKO BIZITZAREN LEIHOAK.

Ikusirik medikuaren etxeke bizitzaren 2 ate eta leiho baten egoera (Motxenea etxeke aldekoak).

Ikusirik maisterrak aurkeztutako idatzia bere momentuan ura sartzen dela barrura adieraziz eta orain ate bat ixteko arazoak dituztela.

Bozketa egin da alde horretako 3ak aldatzeko edo gaizkiena dagon bat bakarra.

Fco. Javier Mitxelena Ordoki jaunak lehenbizi gaizki dagoena bakarrik aldatzearen alde agertu da.

Gaineko bost zinegotziak hiruak aldatzekoaren alde agertu dira.

Ondorioz, ERABAKI DUTE:

- 1) Aurrekontu berriak eskatzea Arantza Zurdingegia, Imanol Iturria Zurdingegia, Betiko Aroztegia eta Ireki Leihoak Aroztegia enpresei ondorengo baldintzak zehaztuz eta bereiziz: atek eta leihoa egurra, PVC edo aluminioko materialakoak izatea, kolorea marroia, kristala 4/16/4 neurrikoak eta isurpen guttikoa edo ez, pertsianarekin edo pertsianarik gabe eta oszilobatienteak edo ez oszilobatienteak.

- 2) Ekainaren 30a arte irekitzea epea aurrekontuak aurkezteko.

Jose Ignacio Madariaga Vergara jauna bueltatu da bilera aretora eta berriz atera da.

9.-LARRETAKO BIDEAREN MUGAKETA.

Ikusirik Larretako alderdiko bidearen mugaketa egiteko beharra (5. poligonoko 560, 561,562,564,565,567,605,604,603,602 eta 729 lur zatien artekoa), nahiz katastroko planoetan agertu bertan ez delakoz ongi ezagutzen eta hori berreskuratzeko herri ondasuna bezala.

Ikusirik udaleko idazkariaren txostena.

Ikusirik Carlos Loizu Loizu teknikoaren txostena.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 114. artikulua eta ondorengo arabera.

Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erreglamenduaren 47. artikulua eta ondorengo arabera.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Aipatutako bidearen mugaketaren espedienteari hasiera emateko onartzea.
- 2) Adierazitako txostena eta gastoa onartzea.
- 3) Akordio honen berri bideak ukitzen dion jabe guztiei eta finka horien gainean errotutako eskubide errealean titularrei berri ematea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta iragarki oholean iragarkia argitaratzea eta ondorengo 40 egunetan interesatuek beren eskubideak defendatzeko egoki deritzen dokumentu guztiak aurkezteko epea irekitzea.

10.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2014ko 25. ebazpenetik 30. arte).

11.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira izan.

Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:

12.-TELEFONICA TELECOMUNICACIONES PUBLICAS S.A.U. ENPRESAREN ESKAERA.

Ikusirik Telefónica Telecomunicaciones Públicas S.A.U. enpresak aurkeztutako idatzia, Herriko Etxeko arkupetan dagoen telefono kabina kentzeko asmoz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Telefono kabina kentzeko baimena ematea.

13.-ESKOLAKO JAN GELAKO BEHARRAK.

Ander Almandoz Indakoetxea jaunak adierazi du eskolako jan gelako hozgailua eta ontzi-garbigailua moldatu behar dela ez dutelakoz ongi funtzionatzen.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Aurrekontuak eskatzea bi aparagailuak moldatzeko.



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

14.-PELLE TTIKI HAUR ESKOLARI BURUZ.

Koldobike Gorostiza andreak azaldu du 1.924,04 euroko irabaziak ateri direla Pelle Ttiki aldeko besta egin ondoren eta 550,00 euro “Zuk erabaki, zuk aukeratu” egitasmoetik (hauek Guraso Elkarte eta biontzat; dagoeneko Guraso elkarteak kobratuak ditu).

Bertzerik gabe, gaueko 21:15ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAk,
Jaime Iturria Mitxelena jn.



